

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ZUMAIAKO UDALA

Zumaiako herrian 18 eta 35 urte bitarteko adina duten gazteei etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak ematea arautuko duen Ordenantzaren aldaketari hasierako onarpena ematea.

Zumaiako Udalaren Osoko Bilkuraren 2025eko apirilaren 30eko Erabakia, Zumaiako herrian 18 eta 35 urte bitarteko adina duten gazteei etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak ematea arautuko duen ordenantzaren aldaketari hasierako onarpena ematen diona.

Zumaiako herrian 18 eta 35 urte bitarteko adina duten gazteei etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak ematea arautuko duen Udal Ordenantzaren aldaketari hasierako onarpena eman zaio, 2025eko apirilaren 30eko Osoko Bilkuraren erabakiz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. eta 70.2 artikuluekin eta Toki Araubidearen Testu Bateginaren 56. artikuluekin bat etorritik, eta jendaurrean jartzen da hogeita hamar eguneko epean, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Epe horretan, interesdun orok aztertu ahal izango du espediente udal-bulegoetan, egoki iritzitako alegazioak egin daitezzen. Halaber, interesdunen eskura egongo da Udal honen egoitza elektronikoa (www.zumaia.eus).

Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, aipatutako Ordenantza onartzeko erabakia behin betiko onartutzat joko da, eta Ordenantzaren testu osoa behin betiko onartzeko erabakia Udaletxeko iragarki-oholean eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da, jende guztiak horren berri izan dezan.

Zumaia, 2025eko maiatzaren 12a.—Iñaki Ostolaza Esnal, alkatea. (3658)

AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA

Aprobación inicial de la modificación de la Ordenanza reguladora por la que se establece la concesión de ayudas para el alquiler de vivienda a jóvenes de entre 18 y 35 años en el municipio de Zumaia.

Acuerdo del Pleno de fecha 30 de abril de 2025 del Ayuntamiento de Zumaia por el que se aprueba inicialmente la modificación de la ordenanza reguladora por la que se establece la concesión de ayudas para el alquiler de vivienda a jóvenes de entre 18 y 35 años en el municipio de Zumaia.

Aprobada inicialmente la modificación de la ordenanza municipal reguladora por la que se establece la concesión de ayudas para el alquiler de vivienda a jóvenes de entre 18 y 35 años en el municipio de Zumaia, por Acuerdo del Pleno de fecha 30 de abril de 2025, de conformidad con los artículos 49 y 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local y 56 del Texto Refundido de Régimen Local, se somete a información pública por el plazo de treinta días, a contar desde día siguiente a la inserción de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa para que pueda ser examinada y presentar las reclamaciones que se estimen oportunas.

Durante dicho plazo el expediente podrá ser examinado por cualquier persona interesada en las dependencias municipales para que se formulen las alegaciones que se estimen pertinentes. Asimismo, estará a disposición de las personas interesadas en la sede electrónica de este Ayuntamiento (www.zumaia.eus).

En el caso de no presentarse reclamaciones en el citado plazo, se entenderá definitivamente aprobado el acuerdo de aprobación de la mencionada Ordenanza y el acuerdo de aprobación definitiva del texto íntegro de la Ordenanza se publicará para general conocimiento en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Zumaia, a 12 de mayo de 2025.—El alcalde, Iñaki Ostolaza Esnal. (3658)